

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Datu pertsonalak babesteko ordezkaria izendatzea

Alkatearen 2021eko urriaren 14ko 525 zenbakiko Ebazpenaren bidez, honako testu hau onetsi zen:

Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak (2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) 37.1 artikuluan xedatzen du ezen, datu pertsonalen tratamendua aginte edo organismo publiko batek egiten duen guztietan, datuak babesteko ordezkari bat izendatu beharra dagoela.

Beste alde batetik, erregelamendu horrek 37.3 artikuluan xedatzen du tratamenduaren arduraduna edo erantzulea agintaritzaren edo organismo publiko bat baldin bada, datuak babesteko ordezkari bakarria izendatu ahal izango dela agintaritzaren edo organismo horietako bat baino gehiagotarako, haien antolaketa egitura eta tamaina kontuan izanik.

Ildo beretik, Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 3/2018 Lege Organikoak 34. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten du datuak babesteko ordezkari bat izendatzea.

Horregatik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikuluz baliatuz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Global Factory SL enpresaren menpeko Jesús Soler Lorent datuak babesteko ordezkari izendatzea, bere lanbide ezaugarriak eta eginkizunak betetzeko gaitasuna direla-eta.

Bigarrena. Zehaztea figura horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 39. artikuluan ezarritako funtzioak beteko dituela (2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa), eta, horrenbestez, eginkizun horiek betetzeko behar diren baliabideak emango zaizkiola, bai eta datu pertsonaletarako eta dagokion tratamendu eragiketarako sarbidea ere.

Hirugarrena. Erabaki hau udaleko langileei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen.

Laugarrena. Datuak babesteko ordezkariaren izendapena interesdunari jakinaraztea.

Bosgarrena. Bat etorri Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak 37.7 artikuluan araututakoarekin eta datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 34.3 artikuluan xedatutakoarekin, argitara emango dira datuak babesteko ordezkariaren beharrezko datuak, berarekin harremanetan jarri ahal izateko, eta haien berri emango zaio kontrol agintaritzari.

Seigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Ondategi, 2021eko urriaren 18a

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA